

Aznarren inbestidurako saioa

EA: «Abertzaletasunaren kontra inoiz ikusi ez den moduko kanpaina egin du Aznarrek»

Espainiako presidenteak ukatu egin zuen «jarrera erasokorra» izan duela

Agentziak / Madril

Jose Maria Aznarren inbestidurako saioak atzo izan zuen bigarren zatia eta bertan Begoña Lasagabaster EAko diputatuaren hitzaldia entzun ahal izan zen, besteak beste. Euskal abertzaletasunaren kontra inoiz ikusi ez den moduko kanpaina bultzatu izana egotzi zion EAko kideak Aznarri, eta bakerako aukerak zapuztu izana.

AURREKO legealdian Jose Maria Aznarrek erakutsitako jarrera kritikatu zuen atzo Lasagabasterrek. Azken urteotan PPren gobernuak euskal nazionalistak ulertzeko inolako ahaleginik ez duela egin adierazi zuen EAko kideak. Bakebidean aurrera egiteko abertzaleek eginiko lana «oztopatzea» egotzi zion.

Halaber, aurrerapausoak emateko espetxe politikaren aldaketa bat izatea beharrezkoa zela adierazi zuen Lasagabasterrek, Aznarrek hori ere ez zuela egin esanez. «Euskal abertzaleak bat eginik ikustean, Aznarrek bultzatu eta onartu zuen abertzaleen kontra inoiz izan ez den moduko kanpaina, guztiak balio zuen abertzaletasunaren kontra: beso mediatiakoen neurrigabeko erabilpena, indarkeria pentsamendu abertzalearekin nahasteko etengabeko saiakera, Eusko Jaurlaritzaren kontrako jarrera». Aznarren diskurtsoa entzun ondoren datorren legealdian antzerako jarrera izango duen kezka agertu zuen Lasagabasterrek.



J. J. GUILLEN / EFE

Begoña Lasagabaster EAko diputatua atzo Kongresuan egin hitzaldian.

Estatutuaren inguruan ere aritu zen Lasagabaster. Hura ez duela bete esan zion Aznarri. Euskal gatazkari konponbidea jartzeko, euskal herritarrek erabakitzen duten marko politikoa errespetatu behar dela esan zuen.

Errepikaren txandan, Aznarrek ukatu egin zuen abertzaleen kontra «jarrera erasokorra» izan duela. «Nik ez dut pakturik egin terroristekin, beste batzuk bai. Nor-

bait tronpatu egin zen eta orain egindako akatsa zuzendu behar du demokratikoki». Gobernuak ETAren kontra aritzeko egoki ikusten duen bidea erabiliko duela erantsi zuen Aznarrek, nahiz haiek ez izan abertzaleen gustukoak.

Horrela erantzun zion Lasagabasterri, indarkeria amaitzeko beharrezko ziren neurriak ez zituela hartu esan ondoren. Aznarrek

BEGOÑA LASAGABASTER

«Aznarren hitzaldia entzun ondoren datorren legealdia berdintsua datorrela ageri da»

JOSE MARIA AZNAR

«Nik ez dut pakturik egin terroristekin, beste batzuk bai. Orain akatsa zuzendu behar dute»

berri ere berretsi zuen bakeak ez duela preziorik, eta Lizarra-Garaziko Akordioa uzteko eskatu zien abertzaleei.

Lasagabasterrek Lizarrako Akordioa elkarrizketa gunea dela nabarmendu zuen eta itun horren izaera «desitxuratzear» egotzi zion Aznarri. Halaber, historiako gatazkari odoletuenak ere elkarrizketaren bidez konpondu direla azaldu zuen.

Eaz gain talde mistoa osatzen duten beste alderdietako (BNG, PA, ERC, IC, eta CHA) ordezkariak ere hitz egin zuten atzo Kongresuko ekitaldian. Francisco Rodriguez BNGko ordezkariak alderdi horri talde propioa izatea eragotzi diotela eta, jarrera hori, «erabateko mospresuzko jokabidea» izan dela azaldu zuen.

«Aznarrek EAJri leialtasun historiko eza egotzi izana lubakiak zabaltzen ari da», Anasagastik dioenez

Agentziak / Madril

AZNARREK inbestidurako saioan EAJri buruz esandako hitzak, EAJ eta PPren arteko harremana zailtzen ari direla adierazi zuen atzo Iñaki Anasagasti EAJko diputatuak. Aznarrek «leialtasun historiko eza» egotzi zion EAJri bere hitzaldian, eta hori jeltzaleen aldetik erreazio gogorra ekartzen

ari dela azaldu zuen Aznarrek. «Bi alderdien artean etorkizunean harreman normala izateko aukerak apurtzen ditu jarrera horrek», azaldu zuen Anasagastik, «eta lubakiak zabaltzen ari dira ondorioz».

Gobernuak Euskal Herriko arazo politikoari aurre egiten ez badio ETak beste 20 urte iraun dezakeela

azaldu zuen Anasagastik. Ildo horretan, Lizarrako Akordioaren aldeko apustua egin zuen, hark 15 hilabetez hildakorik ez izatea ekarri zuela esanez.

Aznarrek inbestidurako hitzaldian indarkeriaren gaiari irtenbidea emateko aukera «huts egin» zuen EAJko kidearen iritziz.

Jaime Mayor Oreja jardun-

neko Barne ministroak, berriaz, Aznarrek EAJri esandakoak beharrezkoak zirela adierazi zuen atzo, «EAJk azken boladan izan duen jarrera kontuan hartuta». «Esandakoa beharrezkoa zen espainiar demokraziarentzat, baina ez gaur egungoarentzat, duela 20 urtekoarentzat baizik», adierazi zuen Mayor Orejak.

Renaud Delizagaraik «sustengu faltaz» AEDko ardurak utzi ditu

Ekainean erabakiko du ABk Hautetsien Biltzarrean segituko duen ala ez

Erredakzioa / Baiona

RENAUD DELIZAGARAI Baionako zinegotzi zen-tristak Euskal Departamenduaren Aldeko Elkar-tean zituen bozeramaile eta idazkari ardurak bertan behera uztea deliberratu du, joan den larunbatean Aiziritzen egin zen Hautetsien Biltzar nagusian Euskal Departamenduaren aldeko hautetsiek agertu zioten sustengu eskasa salatzeke.

Delizagaraik Euskal Departamenduaren aldeko mozioa aurkeztu zuen bilkuran, bertan ziren gehiengo Euskal Departamenduaren aldeko zela oharturik. Baina bere proposamenak ez zuenez beharrezko sustengurik jaso, ez zuen aitzina egin. Hautetsien Kontseiluaren sorreran Euskal Departamenduaren gaia ez aipatzea kontsentsuz onartu zela argudiatu zuten bertan izan ziren hainbat hautetsik, Frantxua Maitia sozialista eta departamenduzaleak, besteak beste.

Bide batez, Parisera eta Lionel Jospinen egoitza den Matignoneran euskal hautetsiek egitekoa zuten «gonbidapenik gabeko bisita» bertan behera gelditu izana salatu zuen «Euskal Departamenduaren aldeko hautetsien nahikeria eskasagatik». Hala ere Euskal Departamenduaren aldeko ekimenean segitzeko xedea agertu zuen Delizagaraik, eta besteak beste, ekainaren 3an Jospinen Cingebelle herrirat egitekoa den martxaren prestakizunetan.

Bestalde, Abertzaleen Batasunak ekainean erabakiko du ea bere ordezkariak Hautetsien Kontseiluan segiko duten ala ez. Horretarako, maiatz bukaeran egitekoa den CIADT plangintzan euskal dossierrei buruz Estatuak agertuko duen jarreraren goaitan egonen dela adierazi du alderdi abertzaleak. Bereziki hizkuntzaren atalean, Estatuak eginen dituen proposamenen aiduru egonen da AB.